

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresan, hainbat gauza garrantzitsu egin behar ditugun proiektua aurrera eramateko eta funtziona dezan. Horretarako funtsezko jarduera batzuk egin behar dira negozio-ereduak funtzionatzeko. Garrantzitsuenak; ekoizpena, arazo baten aurrean konpontzeko gai izatea eta sareko jarduerak izango dira.

Lehenik eta behin, bigarren eskuko gauzak saltzea eta eraldatzeaz gain, lehen esan dugun bezela, ingurumenari lagundu nahi diogu. Horretarako gure ekoizpeneko beste aukera bat eskaintzen dugu eta aukera hori, ozeanoetan baita itsasoetan jasotzen dituzten botilak erreziklatzea, hau da, bizi berri bat ematea pentsatu dugu. Hauen bitartez, kamisetak baita beste jantzi batzuk egiteko aukera edukiko dugu. Baita ere gure ekoizpenak aurrera egin dezan garrantzitsua izango da material guztia esku edukitzea baita bezeroen gertu beraien zalantzak eta eskaerak entzuteko.



Bigarrenik, produktuekin arazoren bat izanez gero, bidalitakoa beraiek eskatutakoa ez izatean edo inperfekzio bat izanez gero, kontsumitzaileak gmail bat idatzi ahal izango digu berari gertatu zaion egoera azaltzeko eta aldaketa doain egiteko. Jarraian, beraien mezua jaso eta begiratu ondoren, harremanetan jarriko gara zerbait egin dezakegun ala ez jakiteko. Erosketa bi aste baino lehen egin bazen, produktua itzuli ahal izango da, prezio berean eta beste produktu bat erosi edo bestela dirua itzuliko zaio. Horrez gain, gure empresako telefono zenbakia edo web gunetik ere idazteko aukera edukiko dute.

Azkenik, guretzat ezinbestekoa den jarduera, ikastaroak eskaintzekoarena izango da. Jarduera honen bitartez beraiek gu hobeto ezagutzeko aukera edukiko dute, baita guk nola egiten ditugun gauzak ikusteko aukera edukiko dute. Hauetarako, beraien kutsadura zein garrantzitsua den ohartaraziko diegu eta gauzak bota beharrean bigarren aukera ematea eta nola egitea erakutsiko diegu.